



II. ERANSKINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

2021-2022 ikasturteko curriculum-antolakuntza

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum-antolakuntza abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 15. artikuluan jasota dago (236/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko).

Ebaluazioaren izaera

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ebaluazioa banan-banakoa, **etengabea eta integratzailea izango da, eta curriculumeko arlo eta jakintzagaien arabera bereizita** egongo da. Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan ezarritako konpetentziak izango ditu erreferentziatzat.

Ikasleen ikaskuntzen ebaluazioa **hezitzailea** izango da, eguneroko lanaren behaketan eta jarraipenean oinarritua, eta irakaskuntza- nahiz ikaskuntza-prozesuak hobetzeko tresna izango da.

Ikasturte-amaierako ebaluazioa

Ikasturtearen hasieran, **hasierako ebaluazio** bat egin behar da. Horren xedea izango da ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera zein den ezagutzea, baita taldearen egoera orokorra ere; hala, programazio didaktikoetan dagozkion doikuntzak egingo dira.

Ikasturtean, irakasle taldeek, koordinatuta, informazioa jasoko dute, zehazteko zer-nolako aurrerapena egin duen ikasle bakoitzak arlo bakoitzean ezarritako helburuak lortzeko eta oinarrizko konpetentzien garapen-maila eskuratzeko.

Ebaluazio-aktetan jasota geratuko dira ikasturtean barrena eginiko ebaluazio-saioetan jasotako ondorioak eta proposamenak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako **ikasturte bakoitzaren amaieran**, irakasleek beren jakintzagaitan ikasleek lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa egingo dute talde bakoitzeko. Jakintzagai bakoitzaren kalifikazioa egiteko, kontuan hartuko da oinarrizko konpetentzia guztietan lortutako garapen-maila.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako ikasle **guztiak** matrikulatuta dauden **jakintzagai guztietan** kalifikatu behar dituzte beren irakasleek.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jakintzagai bakoitzaren kalifikazioak honela adieraziko



dira: kalifikazio negatiboak Gutxiegi (GU), eta gainerakoak Nahikoa (NA), Ongi (O), Oso Ongi (OO) eta Bikain (BI). Horien ondoan joango da zenbakizko kalifikazioa ere, dezimalik gabe, batetik hamarrera. Hain zuzen ere:

Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4.

Nahikoa: 5

Ongi: 6

Oso Ongi: 7 edo 8.

Bikain: 9 edo 10.

“Salbuetsita” (SA) terminoa erabiliko da kasu hauetan:

- DBHko ikasleak “Euskal hizkuntza eta literatura” jakintzagaiko ebaluaziotik salbuesteko eskaera egin badu eta Hezkuntzako lurralde-ordezkariek eskaera onartu badu.
- DBHko ikasleak “Heziketa fisikoa” jakintzagaiko ebaluaziotik salbuesteko eskaera egin badio ikastetxeko zuzendariari, errendimendu altuko kirolaria izatearen ziurtagiria aurkezten badu, edo dantzako irakaskuntza profesionaletako ikaslea bada, eta eskaera hori onartu bazaio.

Aurreko ikasturteetako jakintzagaiak gainditzeke dituzten ikasleen kasuan, saioak egingo dira jakintzagai horiek gainditu diren baloratzeko. Saio horiek “akta osagarri” deiturikoetan jasoko dira, eta maila bakoitzerako egingo dira: 1., 2. eta 3.

Ikasturtea amaitutakoan, irakasle taldeak, taldean, ikasleen ebaluazioa gauzatuko du **saio bakar batean**. Saio horretan:

- igarotzeari eta/titulua lortzeari buruzko erabakiak hartuko dira eta, dagokionean, ikasleak ikaskuntza-prozesuan arrakastaz aurrera jarraitzeko beharrezko errefortzu-neurriak adieraziko dira.
- ikasleak eskuratu duen oinarrizko konpetentzien lorpen-maila adieraziko da: hasierakoa, erdi-mailako edo aurreratua.
- bigarren maila amaitzean eta etapa amaitzean, edo eskolatzea bukatzean, **orientazio-aholkua** egingo da.

Irakasle taldean **adostasunik ez badago** hurrengo mailara igarotzeko eta/edo titulua lortzeko erabakiei buruz, ikaslearen ikaskuntza-prozesuan parte hartzen duten **irakasleen gutxienez bi herenen** adostasuna beharko da erabakia hartzeko.

Erabaki nagusiak, igarotzeari buruzkoak barne, ikasturte-**amaierako ebaluazioaren saioko aktan** jasoko dira.

Ikasleek maila igarotzea

Irakasle taldeak, irakasle tutoreak koordinatuta, **taldean erabakiko du** ikasle bakoitza



hurrengo mailara igaroko den, kontuan hartuta etapako helburuen lorpen-maila, lortutako oinarritzko konpetentzien garapen-maila eta ikaslearen aurrerapenari laguntzen dioten neurrien balorazioa.

Hurrengo mailara igaroko dira ikasitako jakintzagaiak edo arloak gainditu dituzten edo **jakintzagai batean edo bitan** ebaluazio negatiboa duten ikasleak; azken kasu horretan, banakako errefortzu-planak ezarriko dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila desberdinetan izen bera duten jakintzagaiak jakintzagai desberdintzat hartuko dira gainditu gabe dauden jakintzagaiak zenbatzeko. Ikastetxe bakoitzeko berezko irakasgaiak ez dira zenbatuko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan maila igarotzeari dagokionez.

Maila berean geratzea salbuespeneko neurria da, eta ikaslearen ikaskuntza-zailtasunak konpontzeko errefortzu- eta laguntza-neurri arruntak agortu ondoren hartuko da. Nolanahi ere, ikasleak behin bakarrik geratu ahal izango du maila berean, eta gehienez bitan derrigorrezko irakaskuntzan.

Salbuespenez, DBHko laugarren mailan beste urtebete eman ahal izango da, nahiz eta gehieneko aldia agortuta izan, baldin eta irakasle taldeak erabakitzen badu neurri hori lagungarria izango dela etaparako ezarritako helburuak eta konpetentzien garapen-maila lortzeko. Kasu horretan, urtebetez luzatu ahal izango da ezarritako adin-muga.

Maila berean jarraitzeko, curriculum-baldintzak ikasleen premietara egokitzeko moduan planifikatuko dira, baita antzemandako zailtasunak gainditzeko eta dagoeneko eskuratu diren ikaskuntzetan aurrera egiteko eta sakontzeko moduan ere. Banakako plan espezifiko batean jasoko dira baldintzok.

Jakintzagai guztiak gainditu gabe hurrengo mailara igarotzen direnek gainditu gabeko jakintzagaietan egin beharko dute matrikula, eta irakasle taldeak ezarritako **indartze-programak** bete beharko dituzte, eta programa horiei dagozkien ebaluazioak gainditu.

Maila errepikatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak **ez baditu betetzen hurrengo mailara igotzeko baldintzak**, orientazio-taldearen aholkuz eta familiari informazioa eman ondoren, pertsona horrek ikasten jarraitzeko zer aukera dituen azalduko du irakasle taldeak, **orientazio-aholku** baten bidez, ikaslearen premiei eta interesiei erreparatuta.

Orientazio-aholkua

Tutoreak orientazio-aholku bat egingo du bigarren maila amaitzean eta etapa amaitzean, edo, hala badagokio, eskolatzea amaitzean.

Orientazio-aholkuak ikasle bakoitzak lortutako oinarritzko konpetentzien garapen-maila jasoko du, bai eta prestakuntzarekin jarraitzeko egokien jotzen diren aukera akademiko, hezigarri edo profesionalei buruzko proposamena ere. Proposamen horretan, curriculum-



aniztasuneko programa batean edo oinarritzko heziketa-ziklo batean sartzeko aukera ere jaso ahal izango da.

Ikasle bakoitzaren gurasoei edo legezko tutoreei emango zaie orientazio-aholkua.

Ebaluazio-agiri ofizialak

Hezkuntzako Ikuskaritzak jarraibideak argitaratuko ditu, etapetako dokumentazio akademikoa betetzeko ikasturte hau amaitu baino lehen.

Ikasleei eta gurasoei edo legezko tutoreei informazioa ematea

Gurasoek edo legezko ordezkariak beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuan parte hartu behar dute; jakin behar dute zer erabaki den ebaluazioaren eta hurrengo mailara igarotzearen inguruan, eta lagundu egin behar dute laguntza- edo indartze-neurriak bete ahal izateko.

Ikasleen eskola-errendimendua objektibotasun osoz baloratzeko eskubidea bermatzeko asmoz, ikasturtearen hasieran, ikastetxeak ezarritako prozeduraren arabera, sail didaktikoek eta irakasle taldeek informazioa eman behar izan diete ikasleei eta haien gurasoei edo legezko ordezkariak, ikasleak

adingabeak direnean, jakintzagai bakoitzaren helburuei buruz eta ebaluatzeko, kalifikatzeko, maila igarotzeko eta titulua lortzeko irizpideei buruz.

Gainera, ikasturtean zehar, tutoreak eta, hala badagokio, jakintzagai bakoitzeko irakasleek seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa emango dute.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, **tutoreak**, taldeko irakasle taldearen aholkularitzarekin, **txostena egingo du** azken ebaluazioaren ondoren; bertan, ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren emaitza jasoko du. Txosten horretan, arlo bakoitzean eskuratutako kalifikazioak jasoko dira, baita eskola-errendimenduari, gizarte- eta hezkuntza-integrazioari eta, hala badagokio, aurreikusitako laguntza- eta errefortzu-neurri orokorreiei eta oinarritzko kompetentzien eskuratze-mailari buruzko informazioa ere, eta maila igarotzeko, eta, hala badagokio, titulua lortzeko erabakia ere bai. Hala badagokio, orientazio-aholkua ere jasoko da txosten horretan.

Banakako txosten horren **kopia** bana emango zaie ikaslearen gurasoei edo **legezko tutoreei**.

Jarraibide hauen VII. eranskinean **banakako txostenen eredu orientagarrietara** sartzeko estekak agertzen dira.

Berrikuspen- eta erreklamazio-prozedurak

Ikusi jarraibideon V. ERANSKINA.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua

Irakasle taldearen iritziz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean **etaparen helburuak lortu eta dagokion konpetentzia-maila eskuratu** duten ikasleek lortuko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

Halaber, titulua lortu ahal izango dute **ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bat curriculum-aniztasunaren modalitatean** egin ondoren **irakasle taldearen iritziz etaparen helburuak lortu eta konpetentzien garapen-maila egokia eskuratu dutenek.**

Ikaslearen irakasleek taldean hartuko dituzte titulua lortzeari buruzko erabakiak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua bakarra izango da eta kalifikaziorik gabe emango da.

Nolanahi ere, ikasle guztiek ziurtagiri ofizial bat jasoko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolatzea amaitzean. Ziurtagiri horretan jasoko da hezkuntza-maila horretan eginiko urte kopurua eta eskuratutako konpetentzien garapen-maila.

Titulua lortu ez dutenek gainditu ez dituzten jakintzagaien ezohiko proba bat egin ahal izango dute **hurrengo bi ikasturteetan.**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluak batxilergora, erdi-mailako lanbide-heziketara, arte plastikoetako eta diseinuko erdi-mailako irakaskuntza profesioletara eta erdi-mailako kirol-irakaskuntzetara joateko aukera ematen du, irakaskuntza horietako bakoitzaren betekizunen arabera.

Eginiko ikasketen ziurtagiria

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan etapako oinarrizko konpetentziak eta jakintzagaien helburuak eskuratu ez dituztelako titulua lortu ez duten ikasleek ziurtagiri ofizial bat jasoko dute; ziurtagiriak estatu-mailako balioa izango du.

Era berean, egokitutako jakintzagaiak edo arloak ikasi dituztenek ere ziurtagiri bat eskuratuko dute, baldin eta ikasleek kalifikazio positibo bat lortzen badute zeinetan adierazten baita egokitzapenean jasotako ebaluazio-irizpideak gainditu dituztela —ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko eskatzen diren oinarrizko konpetentziak eta etapako helburuak—. Azken ikasturtean matrikulatuta egondako ikastetxeak jaulkiko du ziurtagiri hori.



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación

Ikasle batek oinarritzko lanbide heziketako ziklo batean hasteko asmoa duenean, egindako ikasketen ziurtagiri bat jasoko du, azken ikasturtean matrikulatuta egondako ikastetxeak jaulkitakoa.

Eskolako azken egunetik ekainaren 30era bitartean egingo dira ikasturte amaierako berezko zereginak, eta, bereziki, ikasleen ebaluazioari eta mailaz igotzeari buruz hartutako erabakietatik eratorritakoak.